


Diskoak

IKER BARANDIARAN



No mientes la bicha.

Erizo.

Autoekoizpena.
Iraupena: 39'33".
10 euro.

Zalantza guztiak saihesten dituen era

LAUDIOKO LAGUN BATEK hirukote gas-teiztar honen berri eman zidan eta onartu beharra daukat zur eta lur utzi nautela. Izena oso deigarria ez da eta izenburuak tentazioetatik urrun egotera bultzatzen bazaitu ere, talde honi arreta eskaini behar zaio. Beraiek punk-rocka egiten dutela diote, baina nik hurbilago ikusten ditut 90eko hamarkadako noise-tik eta pasarte batzuetan El Inquilino Comunista ere gogora ekartzen didate. Baina ez pentsa indie mobidarekin ase-

tzekoak direnik, rockeroagoak dira eta nahi dutenean askoz gitarra zikinagoak erabiltzen dituzte, erritmo askoz pisutsuagoak. Baita El Desván del Machoren tankerako giro deserosoak edo 713avo Amor taldearen pareko literatura eta emozio husteak ere. Gaztelaniaz abesten dute eta hitzak asko landutakoak dira, sinbologia eta metafora oso indartsukoak.

www.myspace.com/loserizo

Asier eta Aritz - Erizo

«Hirukote izateak behartzen zaitu zehatzagoa izatera eta hobeto jotzera»

“Ezin tristeago kaleko mutil bat literatura klasean baino”. Tristeak bai, baina hitzak oso onak dira. Zorionak!

Asier: Norberak idazten du bere buruari gauzak azaltzeko, desahogatzeko eta besteekin nolabaiteko konexioa lortzeko. Seguruenik horregatik ez dugu gauza alaiez idazten.

Aspalditik pentsatzen dut musika estilo ezohikoak jorratu eta horiek abesteko ingelesa beharrean, euskara edo gaztelania aukeratzen duzuenok txalo handiagoa merezi duzuela...

Asier: Erizo sortu genuenean nik Exhalen ingelesez abesten nuen. Niretzat oso naturala zen hizkuntza hori menderatzen dudalako eta entzuten nuen musika gehiena hala zelako; gainera, ahalegin handia jartzen nuen hitzetan. Baina gaztelaniaz abesten hasi nintzenetik (euskara bigarren hizkuntza dut), mozerro bat kentzen ari naizen sentazio gero



eta handiagoa dut, eta gaur egun ezingo nuke ingelesez abestu.

“Harra zure barruan hazten dabil, baina ez duzu ikusten”. Atera egiten duzue edo berarekin batera bizitzeko hautua egin?

Asier: Harra tximeleta bihurtuko da, nahiz eta askotan hori ahazten dugun. Onartu eta mimatu behar dugu, esperantza galdu gabe. Ez da ikusteko atsegina, baina ederra izango da eta 24 ordu biziko bada ere, ordu horiek itzelak izango dira.

Zuena power-hirukotearen adibide aproposa da. Laugarren kide bat soberan litzateke?

Asier: Hirukote formatua oso gustuko dugu. Behartzen zaitu zehatzagoa izatera, hobeto jotzera eta abesti bakoitzak ekar ditzakeen arazoak irudimen handiagoarekin saihestera.

Zuen kanta gehienek bere baitan giro eta erritmo asko batzen dituzte. Ase ezinak zarete konposatzerakoan?

Aritz: Kantaren onurako lan egiten dugu. Batzuetan azkar lortzen dugu, beste batzuetan denbora gehiago ematen du eta beste batzuetan azkenean eskuetatik joaten zaizkigu. Baina horiekin guztiarekin gozatzen dugu, kanta bihurtu ala ez. ■